

Neurri zorrotz erantsiak eremu gorrian

Urtarrilaren 11z geroztik Andoain eremu gorrian dago. LABIk Euskadi osorako ezarritako neurri berriez gain, andoaindarrek murrizketa gehiago pairatuko dituzte / 4-6

Leire Salaberria
Andoaingo
ilustratzailearen
erakusketa Bastero
Kultugunean / 10-11



Iraitz Arizabaleta
Aranzadiko kide eta
"Urnieta 1936-45"
liburuaren egileari
elkarrizketa / 12-13

"Egun garelako"
eta "Almanakea",
Egape dantza
taldearen ikuskizun
bikoitza / 8-9



Erreskatea, puri-purian dagoen gaia

Neguko erreskateak hizpide Alex Gomez Eusko Jaurlaritzako Larrialdi teknikariarekin eta Joseba Oiarzabal eta Xabi Ansa Urnietako mendizaleekin / 2-3

Trasteleku eta biltegi txikien alokairua Urnietan

TRASTELEKUAK MP BATETIK AURRERA ENPRESENTZAKO BILTEGI HANDIAGOAK ALTZARI-GORDELEKUAK

barnE

605713127

Igarategi Industrialdea 70. URNIETA Bulegoa: Muebles Iturbe barne.eus

Merkatuko preziorik onenak bermatzen ditugu!



Eteneta eta Adarramendi inguruak Urteberri egunean. Argazkiak ikus daiteke DYAre taldetxo bat, zainketa lanak egiten. AIURRI

Aurrena, erreskatea egin; gero, gerokoak

Erreskateen gaia puri-purian dago gurean azken elurtean; iaz 500 interbentzio egin ziren, 2019an baino 100 gehiago, baina urtea ere berezia izan da; erreskateagatik ordaintzeko arriskua disuasio-neurri gisa erabiltzen dute larrialdi zerbitzuek, ez dirua biltzeko asmoz



Etraintzaren erreskatea Gorbean. IREKIA

Andoni Urbistondo URNIETA
Telebistan, irratian, egunkarietan... toki guztietan agertu dira azken egunetan mendian egin-dako erreskateak. Azkena Antiboto mendian gertatutakoa. Puri-purian dago gaia. Beharrezkoa den zuhurtziarekin ibiltzen ote gara mendian, eguraldia ona ez denean, edo mendiak zurituta daudenean? Axolagabekeriak ordaindu egiten al dira? Egiten al dugu, bada, axolagabekeriarik?

Alex Gomez Eusko Jaurlaritzako Larrialdi teknikaria da, eta ematen dituen datuak aintzat hartuz, Euskadin mendizaleek zentzuz eta arduraz jokatzeko dute. “Gertatzen diren kasuen %90a pasatxo istripuengatik gertatzen dira. Beste arrazoiengatik %10 baino gutxiago”.

Bukatu berri den 2020 urtean 500 erreskate pasa egin dituzte, 2019an baino ia 100 gehiago. Hazkuntza hori, ordea, ezin da aztertu 2020a urte berezia izan dela aintzat hartu gabe. Alegia, etxeratze agindua bi hilabetez luzatu da, eta horrek mendira joan den jende kopurua biderkatu egin du. Eta noski, mendira jende gehiago joan bada, erreskateren bat egiteko probabilitatea ere hazi egiten da. Gehitu horri erreskate batzuk mediatikoki oso deigarriak direla, erreskateena interes handiko kontua bilakatzeko.

Gomezek istripuak koordinatzen ditu, baliabideak nola erabili erabakitzen du. “Mendi erremue-tako istripuetan espezializatuen Ertzaintzaren mendi erreskate atala da, baina beste hainbat talde edo erakundek parte hartzen dute: EAEko suhiltzaileek, boluntarioek, Gurutze Gorria eta DYAKoek... Bilaketa lanetan ere Euskal Herriko Txakur Salba-

Erreskateak kobratu daitezkeen kasuak

Lau kasutan banatuta:

1. Arriskuko kirol bat egitea mendi eremuan (motokrosa, eskia, eskalada, kirol teknikoagoak). Mendian ibiltzea ez da, noski, arriskuko jarduntzat hartzen.
2. Seinaleztatuta edo debekatuta dauden arrisku eremuetan sartzea: elur jausi edo bestelako arriskuak.
3. Meteorologia txarra dagoenean, aktibitatea alerta larria edo alarma gorriko kasuetan egiten denean eska daiteke ordainsaria. Mendi federakuntzaren aseguruia edukiz gero, jakina, aseguru horrek hartuko luke erantzukizuna, lasaitasun handia mendizalearentzat.
4. Abisu faltsua ematea, beharrik gabe. Azken hau ez omen da batere ohikoa larrialdi teknikariak dioenez.

mendu taldekoek laguntzen dute”. Eta zer egiten dute, bada, erreskate taldeek? “Mendizalea gertatu den tokira bertara joan, egon-kortu edo ebakuatu”. Arazoa kokapen zehatzik ez dagoenean gertatzen omen da, baina “sake-lakoari esker arazo hori asko murriztu da, denek baitute kokapen zehatza”. Gomez 112 aplikazioaz mintzatu zaigu. “Orain gutxi jarri genuen martxan, eta aktibatuta eramanez gero, guk beti kokapen zehatza dakigu”. Ezagutzera ematen ari dira aplikazio hori, oraindik, “eta pixkanaka zabaltzen joatea espero dugu”.

Teknikariak garbi uzten du erreskate guztiak egin, egiten direla: “Beti laguntza ematera joango gara, laguntza eskatu

duena artatu, eta bertatik ateratzen saiatu. Horretarako gaude". Beste eztabaida bat omen, erreskateak kobratu behar ote den. "Gu ez gara dirua biltzea bilatzen duen erakunde bat". Pasa den urtean 8.000 euro baino ez zituzten bildu, eta horrek esan nahi du oso gutxitan zigortu zela mendizalea, axolagabekeriagatik: "Disuasio-neurri gisa erabiltzen dugu kobratzeko ohartarazpen hori, jendeak arduraz joka dezan, ez dirua biltzeko asmoz".

"Lana ematen duen mendia da Adarra"

Urteko lehen egunean Urnietan hizpide izan zen bazkalostean egindako erreskatea. Ertzaintza-ren helikopteroak futbol zelaian lur hartu zuen, eta horrek hango eta hemengo txutxumutxu



Alex Gomez Eusko Jaurlaritzako Larrialdi teknikaria da. IREKIA

festa piztu zuen herrian. Adarra inguruetan erreskatatu zuten emakumea ebakuatu zuten. Egun horretan Adarramendin 6-8 zentimetro elur zeuden, zeropeko tenperatura, baina eguraldi al-

drebes-aldrebesik ez. "Adarra nahiko lan ematen duen mendia da, Gorbeia, Aralar eta Aizkor-rrirekin alderatuta apalagoa bada ere garaieraz. Jende piloa joaten da, eta istripuak egotea normala da, neurri batean", esan digu Gomezek.

Teknikariak esan bezala, larrialdi deia bete zuten, eta gero gerokoak, ikusiko da erreskatatu zuten pertsona horrek ordain-sariren bat egin beharko duen edo ez. Eta bukatzeko, mendizaleak arduraz jokatzeko zer egin behar duen galdetu diogu teknikariari: "Arropa egokia eramatea mendira, sakelako bateria beteta eramatea, eta norberaren ezagutza aintzat hartzea mendira joan aurretik, ezusteak saihesteko". Egin kasu, beraz. Denontzat hobe!


"Mendiari errespetua galtzen badiozu sortzen dira komeriak"

XABI ANSA URNIETAKO MENDIZALEA

Mendian dezente ibili naiz azken asteetan, baina jende asko bezala, beste aisi aukera batzuk, tabernak-eta, itxita zeudela ikusita. Elurra iritsi zain mendiko bizikletan ibili nintzen, baina behin elurra egin ondoren, ba elurretan gauza teknikoagoak: Aizkorriko kanala, Ganbo erraketekin, Adarra aldean ere... Toki teknikoetan jende zaildua ibiltzen da, eskarmentua duena, eta igoera horietan ez dut arazorik sumatu jendearekin. Bide ohikoetan egongo ziren arazoak, ziur. Mendizalea kontziente da arriskuaz, baina jende gehiago dabil mendian, jende berria, eskarmenturik ez duena, eta modu horretan arriskua biderkatu egiten da. Elurretan ibiltzeak errespetua eragin behar du beti, ez da txantxetan hartzeko modukoa.

Nik mendiko GPSa erabiltzen dut beti, elurretan, ukimenarekin ez, botoiekin funtzionatzen duena, hatzak hotzarekin komeriak ematen dituztelako, eta horri esker ia ezinezkoa da galtzea, nahiz eta bisutsa sartu bat-batean, eta ikusgaitasuna erabat desagertu. Ziurtasuna bilatzen dut. Elurretan erraza da toki txarretan sartzea, markak desagertu egiten dira, eta kontuz ibili behar da. Nire inguruan jendea

ez dut txorakeriarik egiten ikusi. Nik garbi dut mendiari errespetua zor zaiola, eta galtzen badiozu, arazoak sor daitezkeela. Errespetu hori edukiz, eskarmentuarekin irabazten da, pixkanaka, hasieran zu baino esperientzia handiagoa daukan norbaitekin ibilita. Eguraldia bat-batean alda daiteke neguan, eta ondo egotetik gorriak pasatzera igaro zaitezke minutu gutxiko tartean. Adarrari dagokionez, esango nuke inoiz mendian ikusi ez dudana jendea badabilela, baina konfinamenduaren ondorio zuzena dela. Pentsatzen dut pandemia bukatzen doan heinean arazo hau desagertu egingo dela.



Ansa urnietarra. ANSA

Abisuak: Nire kasuan eguraldiari erreparatzen badiogu, eta ona ikusten badugu, mendira joaten gara. Normalean abisuak eguraldi txarrenekin lotuak daude. Informazio nahiko badugula esango nuke: segapotoan, irratan, telebistan, egunkarietan... Kasu egiten da, baina etxeratzeak, Pirinioetara joateko debekua eduki izanak bizitzaren bat edo beste salbatu duela esango nuke, ze euskaldunak oso mendizaleak, Pirinio zaleak gara. Arriskua emanda badago, zerbaitegatik da, eta orokorrean jendeak abisuak aintzat hartzen dituela esango nuke.

Aralar aldean txikiak ziruditen elur jausiak ikusi ditut, baina sumatzen zen elur geruza 70-80 zentimetrokoa zela. Galdetu nion, topatu nuen eski zale bati, ea tamaina horretako jausi batek pertsona bat hil ote zezakeen, eta baietz esan zidan, burua elur azpian geratuz gero bertatik ateratzea ezinezkoa dela. Apur bat harrituta geratu nintzen, baina hausnartu arazi zidan, elur jausiak Pirinioetan edo Alpeetan bakarrik gertatzen direla uste baitugu. Aralarren ere bai, bistan da, elurte handiak daudenean. Niri elur jausiak ikusi izanak errespetu handia sorrarazi dit. Metro eta erdiko elur geruzaren azpian trabatuta geratuz gero, akabo. Txindokiko ohiko bidetik joanez gero, eguraldi txukunarekin, arazorik ez dago, arrastoa irekita baitago. Alegia, elurretan ibil daiteke, segurtasunez, eta gozatzeko, baina beti ere mendiari errespetua edukiz. Azken finean, Pirinioak etxean bagenitu bezala dago egoera, eta probestu beharra dago.

"Mendia, berez, ezagutzen baduzu, ez da arriskutsua"

JOSEBA OIARZABAL URNIETAKO MENDIZALEA

Adarra eta Aralar aldean ibili naiz batez ere, eta nabarmenduko nukeen lehen gauza da askoz jende gehiago ikusten dela mendian. Ez dakit pandemiarengatik izango den, zehazki, baina agerikoa da horietako askok ez dutela mendian ibiltzeko ohitura edo eskarmenturik. Lehen egiten zituzten gauzak egin ezinda mendira irteten hasi dira orain, agian. Oso esangratsua da jendea segapotoari begira ikustea, bidea nondik ote den jakin asmoz. Hori ez nuen orain arte sekula ikusi, eta Gabonetan hirutan ikusi dut jendea Montefrioko atakan ea ataka pasa behar zuten zalanztan, Adarrara igotzeko. Hori ikusita garbi dago ez dutela mendia ezagutzen, hiriko jendea delako. Ezagutzarik ez dutela argi erakusten du horrek. Jendeak daramatzan jantziak, eta euren arteko elkarriketak entzunda ere, esango nuke jendea kirol jantzi soilekin abiatzen dela, elurretara edo gailur batera iritsi eta berriro autoraino bueltatzeko.

Berez mendia ez da arriskutsua, baina izan edo bilaka liteke arriskutsu, terrenoaren ezagutzarik ez badago, edota ezustean aurrean nola jokatu



Oiarzabal urnietarra. OIARZABAL

behar den ez baldin badakizu. Negu betean gaude, eta Adarramendin elurra dago eta hotz handia egiten du. Eguraldia ere bat-batean alda liteke, eta eguraldi txarra edo lainoa sartzen bada asko zer egin ez dakitela geratzen dira. Berdin nekea sumatzen badute, erreakzionatzeko zailtasunak dituzte, eta horrek arriskua ekar dezake. Mendia beti bezala dago, eta bertara joateko ohitura daukagunok betiko martxan ibili garela esango nuke. Ohiturarik ez duena, aldiz, ba komeria gehiagorekin ibili da.

Abisuak: batzuk kasu egiten dute, eta epelean geratu, baina gehienek leihotik begiratu eta ikusten dutenaren baitan erabakitzen dute mendira joan edo ez. Zentzuz jokatzu gero,

eguraldia txarra izan, edo alarma egoera izanda ere, ez da zertan arriskurik hartu behar, baina kubo edo plastiko batekin elurretara joanez gero, arazoak sor daitezke eguraldia aldatzen bada. Berdin panpina bat egiteko asmoa bada. Adarra bera arriskutsua da lainoa edo eguraldi txarrenekin. Erraz galdu zaitezke, bueltaka hasi, nekatu, eta fisikoki pott egiten baduzu, arazoak sor litezke. Halere, eta dabilen jende mordoa aintzat hartuz, iruditzen zait arazo larri gutxi gertatzen direla. Nahiko ohikoa da jendea kirol oinetako soilekin ikustea Adarran, elurtuta egon denean, eta jakina, oinetako horiekin errazagoa da orkatila bihurritzea, edo hankak bustitzea, eta ordu pare batean arazoak edukitzea.



Goizean goizetik zabalik izaten da Elizondo taberna, Goikoplazan. Astearte goizean hasita, itxita zegoen. AIURRI

Andoain, eremu gorrian

Udalerritik ateratzeko debekua eta ostalaritzaren itxiera dira eremu gorrian egotearen neurri murriztaileak. Abenduaren erdialdetik hona datuek adierazten zuten joera txarra areagotuz joan da, egoera zailera iritsi arte

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Olentzerok eta Mari Domingik ikatza ekarri zuten Andoainera. Ikatza -esan nahi baita- hotza, euria, izotza, elurra eta alarma gorria. Metafora sinpleak alde batera utzita, adi ibiltzeko moduko seinaleak ziren abenduaren 24an agertzen zirenak. Osakidetza-eguneroko boletinari erreparatuta, 21 kasu antzeman ziren aurreko 6 egunetan. Maila apalagoan edo handiagoan, birusaren agerpena egonkorra zela antzematen zen. Abendua-

ren 15ean, Gipuzkoako intzidentzia mailarik apalena erakutsi eta gero, abenduaren 30ean intzidentzia tasa 200dik gorakoa zen, agintariekin helburu bezala ezarritako 60ko tasa idealetik oso urrun. Urte berriarekin batera, gainera, egoera okertu besterik ez zen egin. Positibo bat, hiru positibo, lau positibo... urtarrilaren laugarren egunean 16 izateraino. Egundak besterako igoera horrekin Andoain eremu laranja sartu zen, 313,58ko intzidentzia tasarekin.

Urtarrilaren 5a zen. Hurrengo bi egunetan beste 16 kasu positibo agertu ziren, eta urtarrilaren 7an intzidentzia tasa metatua 440,35era igo zen. Astebetean, intzidentzia bikoiztuta. Asteburua iritsi zen, eta Andoain eremu gorritik gertu zegoela irakur zitekeen Aiurri.eus webgunean. Urtarrilaren bigarren asteburuan, gainera, lehenengoan baino askoz positibo gehiago zenbatu ziren Gipuzkoan. Igoera orokor horretan, Andoain ez zen salbu geratuko. Eta halaxe izan zen. Urtarrilaren 8an 18 kasu positibo, urtarrilaren 9an 9 kasu eta urtarrilaren 10ean beste 3 kasu positibo gehiago. Zenbatzen hasita, 30 asteburu osoan zehar. Ostiraletik igandera datuen batuketarekin Andoain eremu gorrian sartu zen. Urtarrilaren 11ko intzidentzia tasa 607,15koa adieraztera iritsi zen. Eta ez zen hor geratu. Biharamunean 8 kasu positibo gehiagoren berri eman zuen Osakidetza, eta intzidentzia tasak koska bat gehiago egin zuen aurrera, 647,18ra iritsi arte. Positibotasuna jaitsi behar da, horixe da lehen urratsa.

Udalaren dirulaguntza deialdira aurkezteko epea zabalik

Merkataritza, ostalaritza, autonomo eta kultura-sormen sektoreari zuzendutako dirulaguntza lerroa da

Erredakzioa ANDOAIN

Laguntza sektore jakin batzuei zuzenduta dago: autonomoak, tokiko merkataritza eta ostalaritza eta kultura eta sormen-industrien sektorea.

Udalak ohar bidez aurreratu duenez, "pertsona autonomoen eta sormen- eta kultura-industrien kasuan, zuzeneko laguntzak 500 eurokoak izango dira, 750 eurokoak merkataritzarako eta 2500 eurokoak ostalaritzarako".

Aurkeztu beharreko dokumentuei edo tramitazioari buruzko zalantzak Urigainen argituko dituzte, Ekonomia Sustapen, Enplegu eta Gazteria Sailean. Telefono zenbakia honakoa da: 943 304 221. Laguntzen oinarriak labur.eus/boletina_COVID webgunean aurki daitezke.

COVID-19 laguntzen bigarren fasea aktibatuko da, beraz, Andoain. 453.000 euroko zenbatekoarekin, laguntza deialdi berria beste erakunde batzuk sustatutako laguntzen osagarria da, eta, beraz, Eusko Jaurlaritzak edo Gipuzkoako Foru Aldundiak



Urigain kultura etxea. UDALA

abian jarritako laguntzekin bateragarria.

Mari Jose Izagirre Sustapen Ekonomiko, Enplegu eta Gazteria zinegotziak aitortu zuenez, "GAOn argitaratzea gustatuko litzaigukeena baino gehiago atzeratu da, baina Udalaz harago doazen tramiteak dira".

Ezegonkortasun eta galderaz jositako agertoki baten aurrean, Udalak "ahalegin guztiak egingo ditu krisi honetatik ateratzeko, inor atzean gera ez dadin".

Pandemiaren garapena, astez aste

ANDOAIN

- **Urtarrilak 6-Urtarrilak 12:** 64 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 660,53.
- **Abenduak 30-Urtarrilak 5:** 35 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 413,66 (urt7).
- **Abenduak 23-29:** 18 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 267,65.
- **Abenduak 16-22:** 21 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 200,74.
- **Abenduak 9-15:** 9 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 80,29.
- **Abenduak 2-8:** 3 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 194,04.
- **Azaroak 25-abenduak 1:** 26 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 515,22.
- **Azaroak 18-24:** 51 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 796,25.

URNIETA

- **Urtarrilak 6-Urtarrilak 12:** 5 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 177,16.
- **Abenduak 30-Urtarrilak 5:** 6 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 112,74 (urt7).
- **Abenduak 23-29:** 1 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 16,16.
- **Abenduak 16-22:** 0 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 113,09.
- **Abenduak 9-15:** 7 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 161,55.
- **Abenduak 2-8:** 3 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 113,09.
- **Azaroak 25-abenduak 1:** 4 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 274,64.
- **Azaroak 18-24:** 13 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 306,95.



Koronabirusari lotutako orainkaria Aiurri.eus gunean.

Egoerari eta pandemiari lotutako albisteak. DATUAK, EGUNEZ EGUN

www.aiurri.eus

"Itxiera erabakitzen bada, erabatekoa izan dadila"

ANA VENERO ZUMEA KALEKO DANENA TABERNAKO BOZERAMAILEA

Astelehen arratsaldean Aiurriri eskainitako elkarrizketa da. **Atsedeen eguna duzue, astelehen honetan. Eta bihar ere, halabeharrez.**

Hori dirudi, ulertzen dut ostalaritzaren kutsatzen dela jendea, baina aurreko itxieran oso argi geratu zen kutsatzeak ez direla ostalaritzaren ematen. Betikoan gaude.

Notifikaziorik jaso duzue?

Ostalaritzaren elkartearen eskutik jaso dugu guk. Eta ondoren Udalak emaila bidali digu, Eusko Jaurlaritzaren erabakia helaraziz.

Okerrena da ez dakizuela noiz irekiko duzuen berriro. Erabakia intzidentzia tasa metatura oso lotuta dagoelako.

Azken 14 egunetan nabarmen igo da, baina 100.000 biztanleko 500eko proportzio hori argudio bezala erabiltzea... Bilbo aztertzen hasten bazara, ia milioi bateko biztanleriarekin, hango ostalaritza ixteko zeri itxaron behar diote, kutsatze kopurua 5.000ra iristea? Hori ezinezkoa da. Uste dut erreferentziatzko neurri hori ez dagoela oso ondo egokituta. Edo Aduna bezalako udalerriri batean, bi kasu positiborekin ostalaritzak ateak itxi behar ditu?

Itxiera beharrezkoa bada, eremu gorrian gaudelako, ez dadila izan soilik ostalaritzarena. Merkataritza osoa itxi beharko lukete, elikagaiena eta farmaziena bakarrik irekiz. Eta elikagaiena ere ordutegi murriztuan ireki beharko lukete. Ondorioak denontzat izan daitezela, ez soilik ostalarientzat. Guk dagoeneko ezin dugu gehiago egin: Orain ERTEa, orain ez, orain halabeharrezko ERTEa... Ez, ez.

Aforoa murriztu digute, eta baita ordutegia ere. Laneko 4-5 ordu kendu dizkigute, baina zergak %100ean ordaindu behar ditugu. Ezin da ehuneko ehunean negozioa egin, baina zerga guzti-guztiak ordaindu behar dira?

Guk gaur halabeharrezko ERTEari oniritzia eman diogu, gizarte segurantzaren hobariak eduki ahal izateko. Zeren eta bestela langile guztien gizarte segurantzaren ordaindu behar dugu. 6.000 euroko gastuaz hitz egiten ari naiz. Diru-sarrerarik gabe, nondik ateratzen duzu dirutza hori? Urgentziatzko ERTEa onartu behar izan dugu, lantalde osoari datozen sei hilabeteetan enplegua ziurtatuko diogun baldintza onartuz gainera.

Hori horrela, gizarte segurantzaren %85a ez dugu ordaindu behar izango. Baina diru-sarrerarik gabe %15a ordaindu behar duzu berdin-berdin. Lan egin edo ez egin, ordaintzen jarraitu beharra dago. Ez zait justua iruditzen.

Beharbada ostegunean amaitzen da egoera hau, baina ez zait iruditzen. Ez dirudi.

Min ematen dit esateak, baina jende gazteak badu erruaren zati bat. Hogeita gutxi urteko gazte askok ez du probarik egin nahi etxean gerarazi beharko dituztela badakitelako. Beraz, kutsatzeak goruntz egingo du.

Baina ez dago argi non izaten den kutsaketa. Arduragabekeriak egon badaude, baina ez du zertan ostalaritzan izan behar.

Gabonetako bilkuratan dago gakoa, nire ustez. Oso argi dagoela esango nuke. Abenduaren 24an, bestalde, 18:00ak arte lan asko egin genuen. Ikaragarri. Ordutegia murriztean, goizean hasi zen poteoa. Akatsa, nire ustez, den-dena ordu batzuetara konprimitu baitzen. Lan asko egin genuen, eta gazte askok janaria eramateko hartu zuten. Auskalo non jan zuten.

Egia esan, ez dakit nola aterako garen egoera honetatik. Begira Beasainen nola dauden. **Familia askoren egoera zaila izango da, panorama beltz honetan.**

Nik oraintxe kobratu dut azaroari dagokion ERTEa. Urtarrilaren 6an jaso nuen. Orain eskatuko



AIURRI

duguna ikustear dago noiz egiten den kobraketa. Beharbada martxoan edo apirilean. Eta bada mailegua ordaindu behar duen jendea, edo seme-alabak dituztenak. Egunean bizi direnak, eta horiek jan egin behar dute. Denek ez dituzte aurrezkiak gordeta.

Eta laguntzei dagokionez, gaur da eguna ez dudana inolako dirulaguntzarik jaso. Aste honetan aurkeztuko dugu Udalak bideratu duen dirulaguntza. Eusko Jaurlaritzaren 3.000 euroko dirulaguntza hori ez dakigu non dagoen. Berehalako ordainketa iragarri zuten. Deialdia egin eta biharamunean egin nuen eskaera, eta gaur arte ez dut ezer jaso.

Ostalarien artean baduzue harremana. Zer da ordu hauetan zuen artean komentatzen dena?

Oso haserre agertu naiz gure artean dugun foroan, eta askok arrazoia eman didate. Eusko Jaurlaritzarena da erantzukizuna. Akaso birusa soilik tabernetatik agertzen da? Itxiera erabakitzen bada, itxiera erabatekoa izan dadila.

Zuen bezeroei zer esango zenioke?

Zer esan ez dakidala nago. Babes zabala jaso dugu, baina jendeak bere bizitza egiten jarraitzen du. Tabernan ezin zuten kafea hartu eta orain banku batean hartzen dute.

Uste dut jendeak beldurra galdu diola birusari. Egoera honetan pagaburuak ostalariak izaten ari gara.



Gotzone Sagardui Osasun sailburua. IREKIA

LABiren neurri berriak, Andoain gorrian sartu zen egunean

Nahasmena sortu zen astelehenan, abenduaren 10eko dekretuak dioenaren eta LABiren neurri berrien artean

Erredakzioa ANDOAIN

Gotzone Sagardui astelehen eguerdian agerraldia eskaini zuen, LABiren Aholku Batzordeak hartutako erabakien berri emateko. Hitu atal bereiztu zituzten:

Indarrean mantenduko dituzten neurriak:

- Euskadiren itxiera perimetrala.
- Gehienez 6 pertsonako taldeak.
- Gaueko mugigarritasuna 22:00etatik 06:00etara mugatzea.
- Merkataritza ixteko eta kultura jarduerak bukatzeko gehieneko ordutegia 21:00etan izatea.
- Erljio aretoen gehieneko edukiera % 35ean mugatzea.
- Musika- eta ahots-entseguak eta emanaldiak etetea.
- Ostalaritza ixteko ordutegia, 20:00etatik 06:00etara.
- Intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 500 baino gehiagoko udalerrietan dauden ostalaritza- eta jatetxe-establezimenduak eta joko- eta apustu-establezimenduak ixtea, azaroaren 6ko Dekretuan ezarritako baldintza berberetan.

Prebentzio-neurri berriak:

- Intzidentzia-tasa 500 edo gehiagoko duten herrietan, esate baterako, Andoainen:

- › Udalerriko konfinamendu perimetrala, alboko udalerrirako igarobidea salbuetsi gabe.
- › Taldeko kirol-jarduera etetea.

- Bizilekua dagoen Lurralde Historikoko pertsonen sarrera-eta irteera-murrizketa ezartzea.
- 150m²-tik gorako merkataritza-establezimenduetako edukierak %40ra murriztea, eta 150m²-rainoko azalera duten establezimenduetako edukierak % 60ra murriztea.

Hainbat neurrien berregokitzea:

Neurri murriztaile hauen modulazioa Intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 500 baino gutxiago duten herrietan soilik:

- Eskola-kirola berrekiteko baimena ematea, soilik entrenamenduetan. Entrenamendu horiek gehienez ere sei pertsonako taldetan antolatu beharko dira, osara aldatu gabe, eta aldagelak ezin izango dira erabili.
- Profesionalak ez diren dantza-taldeen entseguak baimentzea.
- Jokoaren eta apustuen sektorea berriz irekitzeko aukera ematea, edukiera, ordutegiak eta ostalaritza-sektoreari aplikatzen zaizkion antzeko prebentzio-neurriekin.

UDALERRIAREN KONFINAMENDU PERIMETRALA EZARRI DUTE ANDOAINEN

ESKOLA-KIROLA ABIAN JAR DAITEKE URNIETAN; ANDOAINEN EREMU GORRITIK IRTETEN DENEAN

HEMEROTEKA

SUSTATU.EUS 2021/01/12

B117 anduia: pandemia berria dator pandemiaren barruan

Zazpi egunetan, %46 hazi dira Covid-19 datuak Bizkaian gaurko datuen arabera. Beste datu bat, Irlandatik: hazkundera esponenziala ari da gertatzen, eta detektaturiko kasuetan, analizatu direnetan, %45 da B117 andui (edo zepa edo aldaera) delakoarenak. Horixe baita "andui ingelesak" edo "britainiarrak" duen izen zehatza: B117. Ez da irakurri edo entzungan duzuen azkenengo aldia.

Erresuma Batuko hazkundera B117-ren erruzkoa den bezala, dagoeneko Irlandan bezala, Danimarkan ere kasu gehikuntza andui honi lotua dela baieztatu dute. Ewan Birney EBMLko (Europako Bioinformatika Institutua) zuzendariaren arabera, Estatu Batuetan ere badago B117 honezkero, eta dagoeneko R faktorea (Oinarrizko birsorkuntza tasa) 1-etik gora dagoen tokietan seguruenik andui berri honen ondorioa da. Birsorkuntza tasa horrek adierazten du gaixo bakoitzeko, beste bat baino gehiago ari dela kutsatzen une honetan.

Birneyk eta beste ikertzaile batzuek diotenez, "pandemia bat dugu beste pandemia baten barruan" B117 anduiarekin, eta horrek eraman beharko gaitu neurri sorta berri batzuk ahalik eta azkarren inplementatzera. Lau zerrendatzen ditu Birneyk:

1. Batez ere, txertoa jartzeko kanpainak indartu behar dira. Hauxe da neurri estrategiko inportanteena.
2. eta 3. B117 detektatzeko prozedurak. Egiten ote da horrelakorik Euskal Herrian?
4. B117aren hazkundera jarraitzen badu, itxialdi zorrotzak ezarri beharko dira. Eta honetarako, hobeto orain eta ez geroago.

IRITZIA

JON ANDER UBEDA ANDOAIN

Zer gertatu da abenduaren 15etik hona?

Abenduaren 15ean Andoaingo intzidentzia tasa metatua 73,60koa zen, eta orduko hartan 5.000 biztanletik gorako udalerrien artean Gipuzkoako tasarik baxuena azaltzen zuen. Zer pasa da hurrengo gurasoak, hein handi batean). Egoera gogor, luze eta zail honetan errudunak arinkeriaz seinalatzearen aurka agertzen naiz, eta uste dut tentuz jokatzeko hasi behar dugula. Errudunak seinalatzen hasi aurretik informazioa asko falta zaigulako.

Udazkenean murrizketak iragarri ziren Euskadi osoan, birusaren zabalkundera eteteko. Andoaingo Udalak, gainera, haur parkeak itxia erabaki zuen, "sozializazio guneak" zirela argudiatuta. Guraso talde batek aurre egin zion erabaki horri, eta azkenean Andoaingo Udalak azaroaren 5ean haur parkeak berriro irekitzea erabaki zuen. 916,69koa zen intzidentzia tasa, egun horretan. Urtarrilaren 11n agertu zen 607,15eko intzidentzia tasa baino askoz handiagoa.

Zer gertatu zen "sozializazio gune" horiek ireki zituztenean? Parkeak irekita, plazatan haur eta familia gehiagoren presentziarekin, intzidentzia tasa jaitsiz joan zen astez aste. Azaroaren 5ean 916,69koa zen, eta abenduaren 15ean 73,60koa. Tabernatan, terrazetan eta bankuetan kafea hartuz pasa diren sei aste luzeetan intzidentzia tasa nabarmen jaitsi zen. Beraz, "fokoa" eremu horretan dagoela iradokitzea ez da oso argudio indartsua. Abenduaren 26tik urtarrilaren 5a bitarte inor gutxi ibili da plazan kafea hartuz, oso eguraldi txarra egin duelako. Gabonetan euria, hotza, izotza eta elurra nagusitu dira. Andoaindar askok etxean eman ditugun eguneko ordu gehienak.

Astelehenean argitaratu genuen elkarrizketa batean tabernari batek gazteengan jartzen zuen kutsatzeen igoeraren ardura. Abenduaren 24an eramateko janaria barra-barra saldu zieten gazteei. Non jan ote zuten? Eta zertan ibiliko ote ziren, jaten ari ziren bitartean?

Egun hauetan irakurri ditugun adierazpenetan kolektibo ezberdinak seinalatu dira. Batzurenzat gazteak dira errudunak, eta besterentzat plazan-parkean egoten direnak (haur eta nerabeen gurasoak, hein handi batean). Egoera gogor, luze eta zail honetan errudunak arinkeriaz seinalatzearen aurka agertzen naiz, eta uste dut tentuz jokatzeko hasi behar dugula. Errudunak seinalatzen hasi aurretik informazioa asko falta zaigulako.

Hedabideak gizarteari informazioa zabaltzeko eragileak dira, eta informazio aldetik eskas gabilta. Har ditzagun informazioa eman dezaketen hiru erakunde:

- San Juan bataiatzailea. Foko bat egon zen, hildako bat ere bai. Eta oraindik orain birusak hortxe darrai. Nabarmen jaitsi da intzidentzia, eta hori oso berri pozgarria da. Kabiarena da zerbitzuaren ardura. Zergatik uko egiten diote informazioa ematea tokiko hedabideari? Zergatik ez dute informazio gehiago ematen? Hasi al da txertaketa Ama Kandidan? Eta diot nik, zein da zurrin jokatzearren arrazoiak? Zergatik itxi ateak informazioari? Adinekoein egoitza Andoain dago, bertakoentzat erreferentziakoa gunea da. Zergatik ez baliatu

- hedabideak herritarrei informazio argia eta gardena helarazteko?
- Anbrosia Olabide eraikineko eguneko egoitza. Aurreko astean itxi zutela iragarri zuen Udalak, kutsatze bat egon zela eta. Egoera horrek eragin negatiboa izan al du Andoaingo egoera epidemiologikoan? Bestela esanda, soka ekarri al du edo ekarriko du langile horren kutsatzeak? Zergatik ez du Osakidetzak horri buruzko informazioa ematen?
- Andoaingo Udala. Abenduaren 29ko intzidentzia tasa 267,55koa zen, urtarrilaren 7an 413,66koa. Datuen gainean gabiltzanok zer zetorren ikusten ari ginen. Udalak ezin du horrelakoetan informazio eta sentsibilizazio kanpainarik egin? Ez al dagokio herritarrei ohartaraztea, eta egoera okertzen ari dela jakinaraztea? Udalak gehiago egin dezake arduragabeengan eragiteko. Eta hori sentsibilizazio kanpaina ezberdinen bidez egin daiteke. Musukoa egoki erabiltzen ez dutenak, festa beste ardura batzuren gain lehenesten dutenak, etxean geratzeko beldurrez proba egiteari uko egiten diotenak... segmentu ezberdinak daude, eragin ahal izateko.

Euskadi osoan, urtarrileko lehen asteburutik bigarrenera positibotasun tasa nabarmen igo da. Egoera epidemiologikoa okertuz joan da, eta Andoain eremu gorrian sartu da. Eta orduan hasi gara "errudunen bila". Luze egiten ari zaigu denori pandemia garaia. Martxoan hasi zen eta murrizketa ugari pairatu ditugu geroztik. Ostalariek, zer esanik ez. Itxiera martxoan, maiatzean, azaroan, urtarrilean...

Tokian tokiko datu gehiago jakin beharko genituzke zer gertatzen ari den ulertzen ahalegintzeko. Andoainen, urte hasiera honetan, zein adin tartean ematen ari da kutsatze handiena? Eta non kutsatzen dira? Zer diote kutsatuek? Galdera hauei buruzko erantzunak ematen dituzte? Gabonetako ospakizunak dira akaso kutsatzeen biderkatzearen arrazoiak? Eta datozen asteetan beherapen garaian merkatalgune handietara Andoaindik joan diren dozenaka herrikideak kutsatze berrien sortzaile izango dira?

Galdera asko, bai. Tira, bestalde, bistakoa da kazetaria naizela. Jakin nahian gabilta, gizarteari informazioa helarazteko. Silvio Rodriguezen kantuarekin akordatzeko naiz horrelako egunetan: *"Yo vivo de preguntar, saber no puede ser lujo"*.



Aiurri eskuragarri: Etxe etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urrietan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra: Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri


Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetzak: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi eta Joxe Mari Sagaseta (Umieta).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea.
Zorion agurrak, merkatu txikiak: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA: BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA: DIRLIZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA: ZIURTAGRIA:	ALIATUAK: Umieta udala BABESLEAK: Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.
---	--



Aiurri.eus, unean uneko albistegia



Egoera epidemiologikoa, egunez egun



Andoain eremu gorrian



LABiren azken erabakiak



Elurrari lotutako irudiak



Egape dantza taldearen ikuskizun bikoitza



Izotzaren eta elurraren astea



Trafikoaren egoera



Sarek deitutako manifestazioa Andoainen



Sarek deitutako elkarretaratzea Urnietan



"Almanakea" ikuskizunaren une bat. AIURRI

lazko zamak orpo-puntetan arinduta

Nahi baino luzeagoa izan zen negu gorria kulturarentzat. Aurretik sektorean zegoen zuloa handitu eta ustelak elikatu ditu egoerak. Izotzaldi lehorra bizi izan zuten agertokiek, eta horren bueltan lanean gogor diharduten kideek: taula gainekoek zein fokuen atzekoek

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Oholtzara igo aurreko urduritasuna eta tentsioa ahaztuta izango duenik egongo da tartean, baita publikoaren txaloak eta txistuak faltan botatzen dituenik ere. Kultura hala moduz "oparitu" zen hilabete luzez, gutxie-tsi; lehenagotik ere halaxe gertatu ohi zen maiz.

Hala ere, amore eman ez, eta murrizketek utzitako zirrikietatik loratu dute kulturagileek beren sortzeko grina.

Egape dantza taldeak ere ez dio uko egin nahi izan urteroko hitzorduari. Hobe berandu ezer baino lehen. Hala, bina emanaldi egin zituzten urtarilaren 8an eta 9an Sarobe Arte Eszenikoen

gunean. Lehena "Egun garelako", dantza taldeko gaztetxoek eskutik. Bigarrena "Almanakea", beteranoen ondutakoa. Hila-betetako etenaldiaren eta azken orduko entsegu ordu luzeen ostean, azkenean, iritsi zen estreinaldia, jendaurrean aritzeko tenorea, iazko zamak orpo-puntetan arintzeko beta.

Egunero hasten delako

Eñaut Elorrietaren "Hegoak as-tindu" kantuari doinupean sartu dira hamar gorputz lurretik arrastaka. Eta bizitzaren lehen arnasaren gisan egin dute dantzan, zuriz jantzita; sartu bezala irten dira oholtzatik banan-banan, dantzari bakarra gelditzeraino. Argiak itzali dira eta belarriak zulatze adina jo du iratzargailuak. Ametsa eten dio dantzariari; txapinak jantzi bezain laster hasi du jarduna, bizitza.

Egunaren irakurketa egitea du helburu "Egun garelako" emanaldiak, eta June Garcia taldekideak aitortu du horren sorkuntzari premia batetik abiatuta ekin ziotela: "Itxialdi luzearen ostean, konturatu ginen dantzatze beharra genuela". Hala, buruari eta gorputzari eragin eta egun bateko kronika islatzea lortu dute ikuskizunean. Lan errepikakorra eta mekanizatua irudikatze mugimendu motzak zein finkoak, eta saltoak eta algarak estresaren osteko atseden ospatzeko. Ardurak txostenak, eta deiak, batetik; eta arnasaldia, bestetik. Publikoarekin konektatzea erraza izan dute, zeren, uneren batean

edo bestean, nork bere burua islatuta ikusi baitu dantzarien mugimenduan. Ez dira txistuak falta izan, ez eta txaloak ere. Ikuslea ikuskizunaren parte bihurtu, eta beraie artean dagoen konplizitatea nahiz giro atsegina zabaldu dute antzokian dantzariak.

Gorputzen mugimenduaz gain, musikaz ere bada zer nabarmendua. Euskal dantza eta dantza garaikidea uztartu dituzte, egungo abestiak erabilia. Eskusoinua eta irrintziak ez ezik, erakutsi dute badirela dantza musikatze-ko hamaika modu, Izaroren ahots hauskorretik hasi eta Ziribulio-ren musika elektronikora bitarte. Esanahi zabaleko izenburua du ikuskizunak. Garciak dionenez, batetik, eguneroko ekintzek nortasuna eraikitzen dutela eman nahi izan dute aditzera; bestetik, pasa den urteak utzitako korapiloak korapilo, tinko jarraitzen dutela adieraztea izan dute helburutzat: "Ziklo gisa irudikatu dugu, esnatu bezala jaio egiten zara; eta lo hartu bezala, hil". Hasi eta amaitu egiten da eguna; emanaldiak ere halaxe egin du, argiak piztu eta itzali, oihal gorria berrio ere noiz irekiko zain.

Hamabi geldialdiko bidaia

Gauerdiko hamabiak jo dute puntu-puntu, urte aldatetaren iragarle. Oholtza ilunpean. Abesti batek hartu du agertokia, hain zuzen, iaz irratian eta telebistan sarri (gehiegitan, akaso) entzundako kantuak. *“Resistiré, para seguir viviendo, soportaré los golpes y jamás me rendiré...”*. Estrobo led argiek oholtza argiztatu dute aldizka, eta dantzariak libreki mugitu dira, dantzaleku batean lez.

Urteko egun guztiak barne hartzen dituen erregistroa edo katalogoa da Almanakea; hila-beteka banatzen da, eta datu astronomikoak eta ospakizun erlijiosoak zein zibilak ditu oinarrian. Hamabi hilabete ditu urteak, eta dantzariak ere hamabi geldialdiko ibilbidea irudikatu dute ikuskizunean. Irati Igiñitz taldeko kidea da: “Saiatu gara aldi bakoitzari dagokion bizitasuna gorputzaren mugimenduaz adierazten”. Dantzariak ez ezik, hainbat musikariak ere utzi dute beren aletxoak ikuskizuna egiteko: besteak beste, Lear taldeak, Maialen eta Jone Izagirre ahizpek eta Naroa Agirrek doinua ipini diete Aiatz Hernaniren bertso idatziei.

Hala, urtearen hasieratik abiatu dute kontakizuna, eta ikuslea sagardotegi batean kokatu “Kupela” taldearen erritmoan eta sagardoaren balantzapean. Baserriar zapiak eta euskal txapelak, orde, balio dute beste usadio bati gorazarre egiteko. Bularra moztu zioten emakumea, Ageda, izan dute gogoan, makilek lurra kolpatu orduko. Euskal Herriko etxeko atari guztietara iritsi da burrunba, diruz eta oinetakoz oso aberats ibili ez arren, eztarriz sano dauden eta



Bi ikuskizunen argazki-bilduma ikusgai dago Aiurri.eus webgunean. Argazkian, “Egun garelako” ikuskizuna. AIURRI

gogoz kantatu nahi duten horien eskutik.

Igantzioko ihauterietatik igarota, udaberrira egin dute salto, hots, zelaia koloreztatzen eta hitzordu elizkoiek garrantzia hartzen duten unera. Prozesioan atera dira bata bestearen atzetik, erramua eskutan eta santua sorbaldan. Alabaina, irudikatu dute gurutze kristauaren ifrentzua: San Joan sua eta sorginkeria. Urteko gaurik luzeenak ematen dio hasiera gurean udari. Herriko jaietako erro-

meriek girotzen dituzte hilabete beroenak, eta fandangoetan eta arin-arinetan igaro dituzte dantzariak harik eta eguzkiaren lehen izpiek etxeratu beharreko ordua dela iragarri arte. Eta urnietarrentzat uda bukaerak ezer ona badakar, horixe San Miel jaiak dira. *“... Altxa ezazu kopa, egin dezagun topa, egin Poxta Zaharrekin topa! Ei zar ta gazte, begira! Urnietan ere, festak badira...”*.

Jaien amaierarekin dator bufanda eta eskularruak jatzeko

ordua; hosto galkorreko zuhaitzen eran mugitu dira dantzariak taula gainean, baita morez jantzi ere azaroaren 25an. “Indarkeria irudikatzen saiatu gara dantzan. Erabaki genuen kantak berak bazuela nahikoa indar; beraz, horixe nabarmenezko, guk mugimendu gutxi egiten ditugu, publikoak kantuaren letrari erreparatzeko”, dio Igiñitzek. Horrelaxe eman diote amaiera emanaldiari, eta, bide batez, urteari, zapi morea besoen estuki lotuta.

“ITXIALDI LUZEAREN OSTEAN, KONTURATU GINEN DANTZATZEKO BEHARRA GENUELA”

JUNE GARCIA, DANTZARIA

“EGUN GARELAKO” ETA “ALMANAKEA” IKUSKIZUNEN BINA EMANALDI EGIN ZITUEN EGAPEK

“INDARKERIA IRUDIKATZEN SAIATU GARA DANTZAN”

IRATI IGIÑITZ, DANTZARIA

Konplizitate bila

Pandemiak hankaz gora ipini zuen bi dantza taldeen plangintza, izan ere, aurreko ikasturte amaierako emanaldiak atzeratu behar izan dituzte joan den astebururaino, eta horien prestaketa ez da lan makala izan. Zaila egin zitzaion Garciari, hasieran behintzat, entseguak musukoa ipinita egitera ohitzea: “Akitu egiten zara, eta estresa eragiten dizu pare bat orduz horrela dantzan aritzeak”. Bat dator harekin Igiñitz: “Azken batean, dantzan ez duzu bakarrik gorputzarekin adierazten, aurpegiak ere badu pisua”.

Hala, Garciak gehitu du “zaindu beharreko aspektua” dela aurpegiiko jarrera, entseguetan, musukoak medio, garrantzia handirik ez badu ere, jendaurrean kontuan hartu beharrekoa dela. Igiñitzentzat arrotzetik ere badu egoerak, zeren publikoaren jarrera atzematea zaila baita musukoa ipinitako eta distantziak mantendutako jendearen aurrean: “Zaila da jakiten ea bat egin duen publikoak zuk helarazi nahi duzun asmoarekin. Beraz, konplizitatea gure artean, taula gaineko kideotan, bilatzen dugu”.

Oharra

Argazki-bilduma www.aiurri.eus gunean ikusgai.



JASO AIURRIKO ALBISTEAK TELEGRAMEN!

- Jaitsi Telegram aplikazio ezaguna.
- Sartu, **Aiurri Urnieta**, **Aiurri Andoain** edo **Aiurri Aiztondo** kanalean.
- Batu zaitez (UNIRME) eta jaso eguneko albiste nagusiak.

**ESKUALDEKO
NORTASUN
HITZAK**





Salaberriaren ilustrazio asko honako bi helbidetan ikus daitezke: www.instagram.com/leiresalaberria, edota, leiresalaberria.myportfolio.com/projects. LEIRESALABERRIA

"Saiatzen naiz haur baten azalean jartzen marrazterakoan"

LEIRE SALABERRIA ANDOAINGO ILUSTRATZAILEA

Datozen asteetan ilustratzailearen ibilbidea laburbiltzen duen erakusketa ikusgai izango da Bastero Kulturgunean. Ostiral honetan, esaterako, bisitaldi gidatua antolatu du

Xabier Lasa ANDOAIN

Zure jaioterrian hartu du tokia erakusketak. Sentipen berezirik bai? Bai, noski, andoaingarria bainaz! Gozagarria da norberaren

lanak erakusteko aukera edukitzea, eta are gehiago jaioterrian, familia eta lagunengandik gertu. Orain arte soilik Zumarragan egon da ikusgai,

ez naiz bereziki promozionatzen aritu, lanpeturik bai nabil argitaletxetatik eskatzen dizkidaten ilustrazio lanekin. Egundoko lekua da Basteroko era-

kusgela. Kostatzen da betetzea bere hormak, baina badaukadanez materiala nahikoa, erraz animatu naiz.

2015az geroztik egindako sormen-lanak jarri dituzu ikusgai Basteron, baina txikitatik datorkizu margo-ketarako zaletasuna.

Txiki-txikitatik hasi nintzen Eduardo Arreseygor eta Marga Oiartzunekin arte-tailerrean; irakasleek sormenkuntzatik eta esperimenez jotzea nahi izaten zuten, eta horri eskerrak denetik probatzeko aukera eduki nuen. Urtetan aurrerago, Juan Batista Barandiaran izan nuen maisu, bere etxeko tailerrean. Oso zorrotza eta serioa zen gizona, kulturarako sentsibilitate berezia zeukan. Oso oroitzapen onak gorde ditut garai hartatik; egunero ordu beteko saioa izaten genuen, eta ezin gusturago joaten nintzen. Txoritxoan abestiak entzunez, errealismoa landu genuen sakon, eta olioan margotzeko teknika ikasi nuen. Era horretan, 11-12 urterekin, garbi eduki nuen margoaren munduan murgiltzea zela nirea. Batxiler artistikoa eta Arte Ederrak-en ikasketak

egin nituen, Erasmusekin bi urte Italian igaro nituen, beste hiru Bartzelonan...

Zer ikusiko du Basterora hurbiltzen den ikusleak?

2015etik 2020ra nire sormen lanaren zati handia bat agertzen da. 30etik gora liburu argitaratu dira nire ilustrazioekin, eta horietako asko ekarri ditut; horien orrialdetan txertatuta dauden ilustrazioen bilduma bat ere ekarri dut, jatorrizko ilustrazioak dira. Munduko hizkuntza askotan argitaratu dira, Estatu Batuetan, Mexikon, Erresuma Batuan, Frantzian, Italian... Andoainen ere ez dago "ez ukitu" kartelik zintzilikatu beharrik; liburuak irakurtzeko eta ikusteko daude, eta pare bat aulkitxo jarri dira haurrak eseri eta lasai-lasai egon daitezen. Dena edo ia dena galarazita dagoen garai honetan, eta tabernak ere itxita daudelarik, aldarte polita izan daiteke Basteroko erakusgelan sartu-irten bat egiteko, patxadaz gozatzeko irudiekin eta testuekin.

Irudi jakin bat hautatu duzu erakusketa iragartzeko. Arrazoi berezirik eduki al duzu?

Heidi pertsonajea naturan agertzen da irudian; Johanna Spyri Suitzako idazlearen ipuin klasikoarekin Mexikon egin zen liburuko ilustrazioetako bat da. Ondo sinboliza dezake azken aldiko osasun krisialdia eragiten ari dena gudan: aire askea arnasteko premia sentitzen dugu inoiz bano gehiago, naturarekin kontaktua behar dugu. Nik umetan oso gogoko nituen *Heidi* bezalako animazioak, eta gogo sentitzen dut haurtzarora bidaiatzearen mezua transmititzeko. Beharbada liburuek lagun diezagukete naturarekin kontaktua edukitzea, nahiz etxean egon, aparte samar utzita daukagun geure irudimena landuz.

2011n Etxepare saria irabazita eman zen ezagutzera zure izena ilustrazioaren munduan. Geroztik, ogibide bihurtu al duzu?

Orduantxe esan daiteke, bai, ekin niola nire ibilbide profesionalari. Gogorra izan zen hastapena, baina ibilian-ibilian, zenbait argitaletxeren arreta piztea lortzen ari dira nire ilustrazioak, eta ondo doakit oraingoz.

Euria ari duenean, Hiltzaileak eta La Familia Panda, Somos uno más. Hiru liburu argitaratu dituzu, zure ilustrazioez ez ezik zeure testuez hornituta. Zer sentitzen zara gehiagor, ilustratzaile ala idazle?

Nahiago dut marraztu, idatzi baino; gogokoagoa dut irudiak sortzea, profesionalagoa sentitzen naiz horrela. Ez naiz kapaz nobela moduko zerbait idazteko.

Haurrei begirako literaturan, irudiak testuak adinako garrantzia duenean, bada, orduan formatu horrek bai ematen didala aukera idazteko. Alde horretatik, badauzkat zenbait ideia liburu bat oso-osorik sortzeko neuk, eta egin nezake zerbait denbora egitasmo horretan inbertituz gero. Baina nahiko bazterrean utzita daukat, ilustratzailearen ogibideari ematen diodalako lehentasun.

Beste idazleen testuei ilustrazioak eranstea egokitzen zaizu gehienbat. Zenbateraino daukazu askatasuna zure sormena garatzeko?

Diferentia da lan egitea kanpotik datorrizun testuekin ala zuk egin duzunarekin. Biak dira eginkizun politak, baina jakina, erosoago eta askeago aritzen naiz bigarrenengo kasuan, nire baitagokit eszenak, pertsonajeak, egoerak... asmatzea. Nolanahi ere, erronka erakargarri gisa hartu ohi dut argitaletxeak iriz-



Salaberria Andoaingo ilustratzailea, berak osorik atondutako hiru libururekin. AIURRI

pideak ezarritik etortzen zaizkidanean. Halakoetan, batzuetan, askatasun handia ematen dizute zure irudimena lantzeko, behin testua edo argibide batzuk zure esku utzi eta gero. Bestetan, zorrotzagoak dira. Esate batera, AEBetan edo eta Ingalaterrako argitaletxeek beren arte zuzendaria eta diseinatzailea edukitzen dituzte, eta ondo markatzen dizute zer nahi duten. Behin, Peter Panen kontakizunerako, ondo zehaztu zidaten zein eszenetan zer irudikatu behar nuen;

ilustrazioek suzirikin-eta holako detaile deigarriekin behar zuten izan.

Haur eta gazteen literaturatzat hartzen da ilustratzaileen lana... Balaratzen al da zuen sorkuntza?

Ez dago erraza erantzutea galdera horri. Euskal Herrian, oraindik badaukagu bidea egiteko ilustrazioen albumen eta komikien arloetan. Aurrejuzguek funtzionatzen segitzen dute pixka bat, pentsatuz haur eta gazteen kontuak direla, ondo esan duzun bezala. Joaten zara Frantziara,

esate batera, eta han ia frutadenda batera joatearen parekoa da literatura mota hori erosi eta kontsumitzea; edozein etxeetako komunean, gauzarik normalena da bertan komiki bat edukitzea. Kulturala da jokaera, ikastetxetan eta etxean erakutsi eta zabaltzen dena.

Nolanahi ere, esango nuke, gurean, gero eta estimazio handiagoa hartzen ari dela ilustrazioak daukazan liburua. Batetik, behin eta berriro kontsumitzeko objektu preziatu gisa jotzen delako. Bestetik, iruditzen zait gure atzetik datozen gazteak beste mentalitate batekin datozela, eta natural-natural joaten direla liburutegi batera manga japoniar komiki baten bila, esate batera.

Zure ilustrazioak sare sozialetan zabaltzen dituzu. Zer nolako harre-ra izaten dute?

Jarraitzaile gehiago ditut Espainian edo Ameriketako (Txile, Argentina...), Euskal Herrian baino. Ezagunagoa naiz kanpoan etxean baino, baina hori ez da harritzekoa, gurea merkatu txikia delako eta ekoizpena ere tamaina berekoa delako.

Azkar kontsumitzeko joera nagusi den gizarte honetan, dena efimeroa dela ematen du. Sormenetik egindako ilustrazioak non kokatzen dituzu errealitate horretan?

Egia da kontsumo azkarraren fenomeno. Baina aldi berean, jende askok geldialdi bat egiteko premia sentitzen du, etenaldi bat bizitzan; zure denbora hartu, eta, esate batera, ilustrazio bat esku artean patxadaz gozatu.

Zuk osorik egindako hiru liburuetan, konbentzionalismo sozialak apurtu nahia sumatzen da.

Baliteke etiketak jartzeko joerari aurre egiteko grina islatzea

horietan. Haurrek begiratu garbiago daukate, eta hori azpimarratzen ahalegintzen naiz. Helduak lezioak eman eta eman aritzen gara haurrekin, eta ez gara ohartzen askotan eurek guri erakusteko gehiago daukateela guk eurei baino. Guk ikusten ez ditugun gauzak ikusten dituzte beraiek, eta arazoak aparte utzi eta bizitzaz gozatzeko gaitasuna daukate. Izan ere, helduok, txoko batean utzi dugu barruan daramagun gaitasun bereziko ume hori, ustez heldu bati dagokion bizitza egin nahian. Horrela, saiatzen naiz haur baten azalean jartzen, eta bere ikuspegitik begiratzen egunero-kotasuneko hainbat elementu. Era horretan, iruditzen zait ilustrazio liburu bat baliagarria izan daitekeela helduentzat ere, hausnartzen lagundu gaitzake errealitatea beste modu batera ikustea.

Euria ari duenean liburuarekin, euriari omenaldi tiki bat egiteko gogoia neukan; Bartzelonan bizi nintzen garai hartan, eta euriaren falta sumatzen nuen biziki. ***Euria fenomeno*** ezkor baten antzera etiketatuta daukagu, baina haur batentzat euria beste gauza bat izan daiteke. Aldi berean, euria grisez margotuz, auzitan jarri nahi izan nuen haurrak kolore biziekin identifikatzeko joera, helduek barneratuta daukaguna. Esate batera, orain gutxi arte erabat normala izan da arrosez ala urdinez janztea umeak; pentsatu ezina izan da beltzez janztea!

Hiltzaileak liburuan, berriz, hitz jokoa egin nahi izan nuen, errealitatea maiz ez delako uste duzuna. Pertsonaje bat gaiztoa dela irudituko zaizu lehenbiziko ikusi aldian, baina errealitateak ezustekoak emango dizkizu.





Aranzadi elkarteko Iraitz Arizabaleta Bergarako historialariak idatzi ditu bi liburuak. AIURRI

"Urnietako Udal artxiboa altxorra da, 1936ko aroari dagokionez"

IRAITZ ARIZABALETA "URNIETA, 1936-1945" LIBURUAREN EGILEA

Bi liburuen edukiaz, Urnietako emakumeek bereziki jasandako indarkeria motaz aritu da solasean liburuen egilea, Aiurri astekariarekin

Xabier Lasa URNIETA

Urnietan 1936-1945 epe historikoan gertatutako giza eskubideen zapalketak aztertzen dituzten bi

liburu aurkeztu zituzten Urnietan, joan den abenduaren 11n, Saroben. "Urnietan, 1936-1945. Giza Eskubideen zapalketa eta

errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan" dute izenburua liburuek; Urnietako Udalak eskatuta, Aranzadi Zientzia

Elkarteak bere gain hartu zuen ikerketa lana, eta elkarteko horretako Iraitz Arizabaleta Gantxegi historialari bergararrak idatzi ditu bi liburuak.

Memoria historikoaren arloan egina duen ibilbide pertsonalaz gain, bi liburuen edukiaz, Urnietako emakumeek bereziki jasandako indarkeria motaz, errudunen izenak argitaratzearen inguruko eztabaidaz, ... jardun du Arizabaleta, Aiurri eskaini dion elkarriketan. **Historialaria zara ikasketez eta ogibidez.**

Bai, gaztetan, Grezia, Egipto eta Erromako garai klasiko hark interesa pizten zuen nigan, eta horrexegatik ekin nion historiaren ikasketa akademikoari. Aurrera egin ahala, ordea, zenbait auzi eta galderekin eragin zidaten arreta: gaur nolakoak garen eta zergatik, geure nortasunean zenbat eragin duen geure hurbileko iraganak... Euskal Herriak azken hamarkadetan jasan dituen aldaketa demografikoak, politikoak, sozialak eta abarrak aztertzea eta ikertzea eraman ninduten galdera horiek.

Frankismoak zapal dutako kideren bat familian edo inguruan edukitzeak eraman al zaitu memoria historiko garaikidea jorratzera?

Motibazio berezirik alde horretatik ez dut eduki, egia esanda. Amari beti entzun izan diot Bergarako bere auzoan (Osintxu) nola desagerrarazi zituzten bost lagun eta bertako apaiza nola izan zen salataria; baita ere, azken urtetan, etxean jakin izan ditugu Terueleko frontean hildako osabari buruzko xehetasunak. Nolanahi ere, etxeko transmisio horrek baino gehiago, lehen aipatu dudan galderek bultzatu ninduten Aranzadi Zientzia elkartearekin lan egiten hastera, 2018an.

Zoritzarrez, isiltasuna izan da nagusi bai Bergaran, eta baita Urnietan zein Euskal Herriko beste hainbat herrietan, eta belaunaldi askok geure historia-rekiko ezjakintasun hori jasan behar izan dugu.

Aranzadin zein egitasmoetan aritu zara azken bi urte horietan?

Aranzadik lan-talde bat osatua dauka 36ko Gerra Zibila eta Lehen Frankismoko errepresioa lantzeko, eta asmo horretara lotutako zenbait proiektuetan lan egitea egokitu izan zait. Dokumentuekin datu baseak hornitzea eta testigantza pertsonalak jasotzea, eta, argitalpenak egitea, batez ere. Esate batera, Getaria, Tolosa, Hernani eta Azpeitiako web guneak lantzea; Hernani, Zegama, Orio, Zornotza eta Olaberriari buruzko argitalpenak osatzea... Lanez gainezka gabiltza, egiaren bila eta zapalduen izen-abizenak jartzeko. Esango nuke Debari eta Urnietari buruzko liburuetan esku hartze zuzenagoa eduki dudala, besteetan baino gehiago.

Urnietako bi liburuek, agiriaren bidez, sakon aztertzen dute errepresio frankista.

Urnietako udal artxiboa altxorra da aro historiko horri dagokionez. Era askotako informazioa jartzen dizu eskura: nortzuk parte hartu behar izan zuten ebakuazioan, nortzuk jasan zuten ondasunen konfiskazioa... Eta eskertzekoa da Marijo Henriques bertako artxibariak eskaini didan laguntza; agiriak txukun-txukun sailkatuta edukitzeaz gain, ezinbestekoa izan da bere eskarmentua agiri guzti horiek ulertu eta lantzeko garaian. Beste zenbait herrietan ez dugu horrelako agiri sortarik topatu; aitzitik, bene-

tako astakeriak egin baitira. Deban, adibidez, badakigu Franco hil osteko trantsizioan udal langile batek makina bat karpetak sutara bota zituela. Bergaran, Telesforo Monzonen jauregitik agiri sorta desagerrarazi egin zuten, “tokia egin behar da” esan eta gero. Sekula berreskuratu ezin ahal izango den ondare historikoa galdu da nonahi, ezjakintasunagatik nahiz fede txarrez.

Bi liburuetan, agirien atala ez bezala, testigantza pertsonalena labur samarra geratu dela dirudi.

Halaxe da, eta pena handia eragiten dit horrek. Izan ere, agiriak informazioa ematen dizute, baina hotzak ere geratzen dira zenbaitetan, ez baitute dena kontatzen, pertsonen bizipenak, interpretazioak... ezkutatzen dizkizute. Lasarte-Oriako Islada Ezkutatatuak elkarteak argitaratu berri duen liburua, adibidez, testigantza mordoa jasotzen du, eta aberatsa da alde horretatik. Oria auzoa osoa eta Lasarteko zati bat Urnietako parte ziren garai hartan, eta talde horrek lortu du testigantza ugari jasotzea.

Urnietan, modu berezian sumatu al duzue testigantza pertsonalak ez eskaintzeko joera?

Ez nuke esango hala izan denik berezi-bereziki. Azken urtetan egin dira saiakerak jendea erakartzeko, eta Marijo Henriques artxibaria ere ibili izan da tiraka honi eta tiraka hari, baina azkenean nahi baino gutxiagok hartu du parte, hori da errealtatea.

Esan behar dut denetik gertatzen ari zaigula gertutik bizi izan ditudan herrien ikerketetan. Deban, testigantza mordoa jaso ahal izan genuen; Hernanin ez hainbeste, eta gabezia hori erremediatzen saiatzen ari gara orain. Orokorrean, Urnieta barne, zenbait arazorekin egiten ari gara topo: batetik, hiltzen ari dira garai hura modu kontzientean batean bizi izan zuten pertsona nagusiak, edo eta, ez daude unerik egokienean memorian gordeta daukatena kontatzeko. Sasoi hartan umeak ziren pertsona batzuk gure artean bizi dira, 80-90 urteren bueltan da-

"FRANKISMOAN ARDURAREN BAT ZUTEN PERTSONEN IZENAK ARGITARATU EGIN BEHAR DIRA"



Urnietan iraganean gertatutako giza eskubideen urraketen kronika idazteko orduan, Iraitz Arizabaleta ezinbestekoak izan ditu udal artxiboan gordetzen diren agiriak eta bertan lan egiten duen Marijo Henriquesen laguntza. AIURRI

biltzanak, baina eskasagoa da horien informazioa.

Bestetik, badago gogoia “hautsak ez harrotzeko”, gertakizun tragikoen kasuetan batez ere; izan ere, zapaldu eta zapaltzaileen ondorengo belaunaldi asko elkartu egin dira familietan, eta inori ez zaio interesatzen haserrikerik piztea bere inguruan. Bati baino gehiagori entzun izan diogu “badakit hau eta beste, baina nahiago dut ez kontatu”, edo eta “familiar arazoak sor ditzaket hitz egiten badut”. Badakizu, batzuetan egiatan baita “herri txiki, infernu handi” esaera...

Arrazoi horiez gain, Urnieta bezalako herrietan populazioa aldatzen joan da hamarkadetan, eta errepresioa zuzenki jasan zuten familia asko jada ez dira bertan bizi.

Bi liburuetan, herriko zenbait salararien izen abizenak aipatzen dira. Konparazio batera, 1936ko urrian frankistek Andoain eta Urnietako zenbait herritarren aurka burutu zuten epaiketa aipatzerakoan, horietako batzuk fusilatzen eraman zituzten herriko salatariak izendatzen dira...

Salatarien izenak argitaratu ala ez, eztabaidatu izan dugu Aranzadin, eta atera dugun ondorioa da errealtatea ezkutatzeak ez duela onik egiten; geure historia den bezalakoa dela, bere argi eta ilunekin, eta onartu beharra dagoela, are gehiago 80 urte igaro eta gero. Errepresioan zehar

gatilua sakatu zuen pertsona igual ez zen herrikoa izango, baina bai hau eta beste hiltzeko papera sinatu zuen agintaria edo testigantza emaile-salataria. Beste herrietan ere horrelako kasuak gertatu izan dira, eta argitaratzea izan da gure erabakia. Erantzukizun hori dago egia topatu eta argitara jarri nahi duen historialariari.

Nolanahi ere, Aranzadin nahi-ko argi daukagu honako irizpidea: frankismoaren baitan ardura nagusiren bat (apaiza, alkatea, udal idazkaria, Falangeko idazkaria...) zeukan pertsonen izenak argitaratu egin behar dira, baldin eta agirietan errepresioaren eragile gisa agertzen badira. Beste kontua da, esate batera, epaiketa jakin batean epaituen kontrako testigantza ematen duena herritar xehe bat suertatzea; halakoetan, hobe ez izendatu, ez baitakigu gogo onez ala presiopean deklaratu ote zuen.

Garrantzia handia eman diozue emakumeen aurkako zapalketari. Herriz herriko ikerketek, denboraren poderioz, erakutsi digute garai hartako gizarte erduek asko markatu izan zutela,

"EMAKUMEEN UMILIAZIOA HELBURU ZUEN ERREPRESIOAK, ETA URNIETA EZ ZEN APARTEAN GERATU"

eta horrexegatik, plaza publikoan batez ere gizonezkoak agertu izan zirela, eta aldi berean, ezau- garri bereziak eduki zituela emakumeenganako errepresioak. Umiliazioa eta suntsiketa pertsonala zuen helburu zapalketa mota berezi horrek. Artxiboetan apenas agertzen den ezer, eta saiakera berezia egin dugu emakumeak gizartean betetzen zuen funtzioa azpimarratzen. Urnietara etorrita, kasu bakan batzuk topatu ditugu paradigmakoak. Hala nola, Angela Arrue, Goiburu auzoko irakaslea, irakasteko zeukan gaitasuna zela-eta guztiek goraipatzen zutena; euskaltzale izateagatik ilea moztu egin zioten, eta lanpostutik kanporatua izan zen. Alkain eta Arizmendi ahizpak ere antzeko tratua jasan zuten euskaltzale eta abertzale izateagatik. Oriako

auzoan, bazen emakume bat, Concepcion Okariz; hiru urteko kartzelara kondenatu zuten, lankide baten salaketak bere aurkako gerra kontseilua eragin eta gero; Francoren irudia bat guraizearekin moztea izan zen bere bekatua.

Maiz, emakumeei, mendeku gisa ezartzen zitzaizkien era guztietako zigorrak; “holako edo halako senarra, anaia edo semea daukazunez...”. Esate batera, Errepublikan alkate izandako Joxe Mari Belauntzararen ama bere etxetik bidali egin zuten, eta bertan frankista bat jarri zen bizitzen...

Sarobeko aurkezpenean adierazi zenuenez, oraingoz, Urnietan, egia jakitera hurbildu gara. Segidan, justizia eta aitormena heldu behar-ko luketela gehitu zenuen.

Konplikatu dago egiatik aurre- ragoko printzipioak garatzea. Aitormenari dagokionez, Urnietako Udalak borondatea baldin badauka etorkizunean bide hori jorra liteke ekitaldi publikoen eskutik, hori eta gehiago zor zaielako giza eskubideen bor- txaketaren bat jasan zuten urnietar guztiei. Baina zailagoa ikusten dut justiziaren arloan. Batetik, hilda baitaude orduko biktima zuten guztiak; eta bes- tetik, ematen baitu 1977ko am- nistiaren legeak aginduta ahaz- tu egin behar dugula gertatuta- ko guztia. Egin kontu, Erandion 1969an poliziak balaz hildako biktima bat aitortzeko ere zail- tasunak jartzen ditu estatuak. Bada, esango didazu 1936koekin... Ahaleginak egin behar dira, eta urrutira gabe, hor daukagu Ar- gentinako epaitegiek irekita dagoen kereila frankismoaren aurka. Nahiz eta jakin estatua nekez makurtuko dela eskakizun horietara, denborak esan beza...



Urnietako
udala

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 14

ANDOAIN Sarrerren salmenta
Astelehenean hasita, martxoaren amaiera bitarteko ikuskizunen sarrerak salgai daude.
Bastero Kulturgunea, Kutxabank.

ANDOAIN Erakusketa
Leire Salaberriaren ilustrazio lanak.
Bastero Kulturgunea.
Urtarrilak 12-otsailak 4.

ANDOAIN Odol emailea
Izena-emaleko: 943 007 884
La Salle Ikastetxea, 16:30-20:10.

OSTIRALA 15

ANDOAIN Bisitaldi gidatua
Leire Salaberria ilustratzailearen eskutik. Beharrezkoa da izena emateko aldeztu aurretik: 943 30 35 40.
18:00, Bastero.

URNIETA Antzerkia
"Erradikalak ginen" antzezlanak, Ane Labaka eta Beatriz Egizabalen eskutik.
Sarobe, 19:00.

ANDOAIN Antzerkia
Mauthausen, Trajin konpainia.
Sarobe, 19:00.

IGANDEA 17

ANDOAIN Haur antzerkia
"Alpha. Lo egiteko ordua".
Bastero, 17:00. 4 euro.

ASTELEHENA 18

URNIETA Ikastaroak
Marrasketa eta pintura, eskulanak, joskintza, zur taila... Udalak ikastaroetan izena emateko epea zabaldu du.
Izena emateko azken eguna.

OSTIRALA 22

ANDOAIN Kontzertua
Willis Drummond zuzenean, formatu akustikoan.
19:00, Bastero. 12 euro.



Pilar G. Almansak zuzenduta, Inma Gonzalez da aktore nagusia. **TRAJIN**

ANDOAIN "Mauthausen" helduentzako antzezlanak

"Mauthausen. Gure aitoren ahotsa" antzezlanean benetako testigantza ageri da, hil aurretik berak zuzenean grabatutako oroitzapenetatik abiatuz. Bere bilobak bizia ematen dio oroitzapen horri. Trajin konpainiaren eskutik. Bizitzari, elkartasunari eta umoreari egindako ereserkia da.
Urtarrilak 15, ostirala. 19:00. Bastero Kulturgunea. 12 euro.



Gorka Gansoren eskutik, antzezlanak. **GANSO & CIA**

ANDOAIN "Alpha. Lo egiteko ordua" haur antzezlanak

Argia itzaltzen denean, itzalak esnatzen dira. Argia itzaltzen denean, ametsek txistu egiten dute. Hitzik gabeko antzezlanak, 5 urtetik gorakoentzat.
Urtarrilak 17, igandea. 17:00. Bastero Kulturgunea. 4 euro.


LARUNBATA 23

ANDOAIN Pailazoak
"Amaren intxaurrek" Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren ikuskizuna.
16:00, 19:00. Bastero. 4 euro.

ESKUALDEA Farmaziak

Andoain:
Ansa: Elizondo, 6. 943 590 802.
Urnieta:
Etxebarría, Hernani. 943 551 793.
Larunbatean eta igandean.

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

The Croods 2

Haurrentzat:

Larunbata, 16:

16:30.

Igandea, 17:

16:30.

Hasta el cielo

Larunbata, 16:

19:00.


Igandea, 17:

19:00.


Astelehena, 18:

19:00.

Ikuslearen eguna.



SINOPSISIA



Hasta el cielo

Zuzendaria: Daniel Calparsoro. **Gidoia:** Jorge Guerricaechevarria. **Aktoreak:** Miguel Herran, Carolina Yuste, Luis Tosar, Asia Ortega, Patricia Vico, Fernando Cayo... **Herrialdea:** Espainia (2020). **Generoa:** Thriller. **Iraupena:** 121 min.

Akzioz beteriko filma

Zinemaren industrian eskarmentu handikoak dira Galparsoro zuzendaria eta Guerricaechevarria gidolariak. Biak euskal herritarak. Lapurreta giroko filma da oraingoan landu dutena, Miguel Herran aktore gaztea eta Luis

Tosar beteranoa elkarrekin lanean jarriz. Anbizioari buruzko filma da, zeinean protagonista ez da lapur hutsa izatearekin konformatzen. Behin lokatzetan sartuta, zeruraino iritsi nahi du. Takilan ikusien artean egoteko egindako ekoizpena da.



Croods: Una nueva era

Zuzendaria: Joel Crawford. **Gidoia:** Kevin Hageman, Dan Hageman, Paul Fisher, Bob Logan. **Herrialdea:** AEB (2020). **Generoa:** Animazioa. **Ekoizpena:** Dreamworks. **Iraupena:** 195 min.

Familien arteko borrokaldia

Dreamworks faktoriaren ekoizpen berria Basterora iritsiko da, asteburuan. Aurrehistoriako familiaren

abenturak biziberritu dituzte, bigarren filma eginez. Familien arteko borrokaldia elkarren arteko lankidetzan amaitzen da.

Euskara ikasteko aukera berria Urnietako AEK euskaltegian

Euskara ikasi edo hobetu nahi duten pertsoneri eskainita dago ikastaroa

Erredakzioa URNIETA

Urte berriarekin batera, abian dira B2 eta C1 mailako ziurtagiria prestatzeko ikastaro berriak. Horrez gain, migratzai-leentzako hastapeneko klaseak eskainiko dituzte eskualdeko AEK euskaltegietan.

B2 eta C1 mailako klaseak goizez izango dira, astean bitan. Horrez gain, bi astean behin ordu erdiko tutoretza jasoko dute ikasleek. Klaseak bi ordukoak izango dira, eta ikastaroa aste hoetan bertan hasi da. Tokia badago, oraindik orain.



Artxiboko irudia. AEK

Euskara ikasi edo hobetu nahi duten pertsoneri eskainita dago ikastaroa, titulua edo ziurtagiria eskuratu nahi dutenez gain. Dirulaguntzak matrikularen %100erainokoak izatera irits daitezke.

Aipatutakoaz gain, autoikas-kuntzako ikastaroak ere eskaintzen ditu Hernanialdeko AEK-k, klaseetara joateko zailtasunak dituzten ikasleei zuzenduta.

Euskaltegietako gela guztiak egungo osasun egoerara egokitu daude, beharrezko neurri eta produktuez horniturik.

Izen-ematea

Interesa duenak 607 592 864 telefono zenbakira dei dezake. gertura daiteke Urnietako AEK-euskaltegiaren bulegoetara ere. Errekalde 1 kalean daude. E-potsa: urnieta@aek.eus.

Lekaioko ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago

Ikastaroak otsailaren 1ean hasiko dira, maiatzaren 27ra bitarte. Izena emateko epea astelehenean amaituko da

Erredakzioa URNIETA

Marrazketa eta pintura, esku-lanak, joskintza, zur taila... otsailaren 1ean hasiko dira ikastaroak Lekaioko kultur etxean. Udalak izena emateko epealdia zabaldu du, datorren astelehenean amaituko dena. Urnietarrei eskainitako ikastaroak dira, eta hainbat hobari eskaintzen zaie. Tokia egongo balitz, ingurueta-ko herrikiideek izena emateko aukera dute.

Egoera epidemiologikoak baldintzatuko du ikasturtea, eta gerta liteke ikastaroren batean



Marrazketa ikastaroa. GOIENA

klaseren bat on line bidez eskaini behar izatea. Soilik, hori bai, pandemia egoerak baldintzatuta.

Ikastaro sorta

Izena-emateko orria Urnieta.eus gunean aurki daiteke.

- Marrazketa eta pintura. Oinarrizko ikastaroa, teknika ezberdinen garapena. Asteartea: 18:30-20:30.
- Eskulanak: Teknika ezberdinen lanketa. Asteazkena: 18:00-20:00.
- Joskintza: Josteko makina erabiltzen ikasi, konponketak egin (praka barrenak hartu, kremaillerak aldatu,...) eta sormen lana. Asteazkena: 18:30-20:30.
- Zur taila: Egurra lantzen ikasteko egokia. Osteguna: 18:00 -20:00.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN

Aratz Berrueta Aznar eta Eneko Berrueta Elizegi

Aratz txikiak urtarilaren 11n urtetxo bat beteko du eta osaba Eneko urtarilaren 13an 39 urtetxo! Zorionak bikote! Ondo pasa eta muxu pila familiaren partetik!



ANDOAIN

Amaia Errazkin Ezeiza

Urtarrilaren 27an, 24 urte beteko dituzu. Ondo ospatu. Mila muxu, aitona Esteban eta amona Miren.



URNIETA

Aritz

Zorionak Aritz. Urtarrilaren 21ean bederatzia urte beteko dituzu. Ondo pasa eguna etxeko guztiekin.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri astekarian. Oso erraza da, eta dohainik! Hiru bide dituzu:

www.aiurri.eus

Sar zaitez "Zorion agurrak" atalean, eta fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia igotzen diren unetik, urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan. Tamaina editatzerik ezean, zorion-agurra helarazteko erabili ezazu posta elektronikoa.

diseinua@aiurri.eus

Mezua bidali posta elektronikora, eta idatzi: izen-abizenak, herria, eguna.

Arantzibia 4-5, behea

Etor zaitez bulegora, Andoainera. Telefono zenbakia: 943 300 732.

Whatsapp bidez:

619 163 537.

ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732
edo publizitatea@aiurri.eus

- Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ /
- Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ

Eskelak Aiurriin: 90 euro

Urnietako arreta zerbitzuaren ordutegia, COVID-19 garaian

Garbiketa eta desinfekzio lanak areagotzeko, Bertan bulegoa 11:00etatik 11:30era itxita egoten da

Erredakzioa URNIETA

Urnietako Udalak gogora ekarri nahi du zein den ordutegia: Astelehenetik ostiralera, 07:30etik 11:00etara eta 11:30etik 14:30era Zabalik dago Bertan bulegoa.

Bertaratzen direnek prebentzio-neurriak bete beharko dituzte: Banaka sartu beharko da, eta udal langileek deitu arte kanpoan itxaron beharko da. Eskuak garbitu behar dira.



Bertan bulegoa. UDALA



Beatriz Egizabal lasartearra. AIURRI

“Konplizitate handia dugu, eta oholtza gainean nabari da hori”

BEATRIZ EGIZABAL KONTALARIA ETA PAILAZOA

Pandemiak kulturegintzan utzitako ajeari aurre egiteko ahaleginean, “Erradikalak ginen” obra izango da Saroben ostiralean arratsaldeko 19:00etan hasita

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

“Feminismoa bai, baina batzuk pasa egiten dira, erradikalak dira”. Uste horri erantzuna ematea du helburu Beatriz Egizabal Lasarte-Oriako umoregileak Ane Labaka bertsolariarekin elkarlanean sortutako proiektu eszenikoak. Barre algaretatik bata; errimetatik bestea. Hala, seriotasunaren eta umoregintzaren arteko elkarbizketa posible dela frogatu dute “Erradikalak ginen” antzezlanean. Hainbat gaiez min-

tzo dira taula gainean: gorpuzteko aldaketez, sexualitateaz, eta zahartzeaz, tartean. Nor bere eskarmentutik, esparrutik eta erotik, “erradikalasunetik”. **“Erradikalak gara” sortu zenuten lehenik; eta jarrain etorri zen “Erradikalak ginen”.** Lehen lanaren arrakastak eragin zuen bigarren ikuskizuna egiteko beharra?

Hori da. Ez genuen hasieratik aurreikusita beste ikuskizun bat egitea. Baina harrituta gelditu ginen hasieratik, ez baikenuen espero izan zuen harrera

ona. Zerbait duina egin nahi genuen lehen ikuskizunean, eta duina zela argi gelditu zen publikoaren erantzunari erreparatuta. Biak gara urte luzez oholtza gainean aritutakoak, baina ikusten genuen emanal-

**"ANEREN
SERIOTASUNAK,
UMOREAREN
KONTRAPUNTUAK,
FUNTZIONATU DU"**

diaren bukaeran zerbait berezia gertatzen zela. Uste dut asmatu egin genuela formatuarekin eta horri eman genion emozioen bidearekin. Hortik sortu zen jarraitzeko gogo, izan ere, ikusten genuen formula hori ez zegoela amaituta.

Horrelaxe zenioten “Erradikalak ginen” obraren iragarpenean: “Bigarren aldiak inoiz ez direla onak izaten esaten dutenei aurka egitera gatoz”. Lortu al duzue ustea apurtzea?

Nire ustez bai. Noizbait utzi behar diozu lehen ikuskizuna egiteari, eromena baita bestela. Kosta egin zitzaidan niri, beldurra sentitzen nuen. Hainbeste gozatu nuen lehenarekin, non sentitzen nuen bigarrena bestelakoa izango zela. Hala ere, “Erradikalak ginen” emanaldia-ekin sentsazio berberak ditut. Eduki aldetik, osatuagoa dago bigarrena. Lehen lanean feminismoa landu arren, bertsogintzaz eta euskalgintzaz ere jarduten ginen, besteak beste. “Erradikalak ginen” ikuskizunean, ordea, feminismoan dau den askotariko eztabaidek hartzen dute indarra.

Gai-zerrenda luzea mahaigaineratzen duzue obran.

Hamaika gai ikutzen ditugu ikuspegi feminista batetik, alegia, bi emakume feministen begietatik. Guretik egindako ikuskizuna da; geure buruari barre egitetik abiatzen gara, baita gure kontraesanetatik ere. **Oro har, seriotasunari zein errimeei eusten die Labakak. Aldiz, umoretik hitz egiten duzu zuk obran. Nola uztartu itxuraz kontrakoak diren bi aldeak?**

Barrenetik atera zaigu eta funtzionatu du. Badirudi ez baduzu sufritzen sortze-prozesua ez dela emankorra izango. Baina guk ez dugu sufritu, oso ondo moldatu gara hasieratik. Gainera, ez da bakarrik eduki kontua. Aneren seriotasunak, umorearen kontrapuntuak, oso ondo funtzionatzen du. Behar bada, formula bera ez litzateke egokia izango beste bi kiderekin. Konplizitate handia dugu, eta oholtza gainean nabari da hori.

**"UMOREA
NOLA ETA NONDIK
EGITEN DUZUN
DA
GAKOA"**

Erronka handia al da gai sakonak umoretik jorratzea?

Erronka da, bai. Ipuin-kontalaritzatik eta clown mundutik nator; bertan, umorea zeharlerroa da, seriotasunari buelta ematen zaio. Nolabait hori da nire lan tresna, baina erronka handia da, muga fin batean kokatzen zarelako. Clown-a egin izana oso lagungarria da niretzat, zeren ikuspuntu horretatik, inozentziatik, gauza asko esan baitaitezke. Sudur gorria kenduta, jabetu naiz esaten ditudan hitzetan dudala indarra. Beraz, bada erronka, baina hogeitaz urte daramatzat prestaketan.

Parez-pareko edota behetik gorako umorea egiten duzue obran, ezta?

Hori da aurretik aipatutako muga fin horretan aritzeko gakoak. Kritika gogorrek egin ditzakezu zeure buruari barre eginda; are gehiago, publikoan, gizartean dauden jarrera asko kritikatzeko aukera ematen dizu horrek. Baina zure ziliborretik egiten duzunez, zailagoa da inor mintzea. Bestalde, behetik gora egindako umorea ere oso inportantea da: guztiaz egin al daiteke barre? Egin, guztiaz egin daiteke barre, baina umorea nola eta nondik egiten duzun da gakoak. Botere-harremanak daude tartean: behean dagoenak noski erabil dezakeela umorea, iraultzailea da; ordea, boterea duenak behekoari barre eginez gero, zapaltzailea da.

Barre algarak entzuten dira ikuskizunean, baina bada deseroso sentitzen denik.

Jakina dela helburuetako bat. Publikoa deseroso sentitzen da gu geu ere horrelaxe sentitzen garelako hainbat gai landuta; esaterako, interseksionalitatea jorratzean deseroso sentitzen naiz eta sentimendu hori publikoak berak sentitzea dut helburu; zeren arazo bat baita, baina are arazo larriagoa da horrelako gai batekin deseroso ez sentitzea. Hausnararazi egin nahi diogu jendeari, eta umoreak badu pisua horretan.

**"KRITIKA
GOGORRAK
EGIN DITZAKEZU
ZEURE BURUARI
BARRE EGINDA"**